

Bilbao Kirolak erakundearen aldagelak erabiltzeko araudia.

- 1.** Aldagela kolektiboak ditugu (gimnasioak, kantxak eta igerilekua), bi sexueterako. Aldagela hauek erabilera indibidualerako kabinak dituzte.
- 2.** Familientzako aldagelak ditugu; bertan, mutikoak edo neskatilak sar daitezke, 7 urte baino gutxiago badituzte. Adin horretatik aurrera, bakoitza bere sexuari dagokion aldagelara joan behar da.
- 3.** Eskola-aldagela gisa erabiltzen diren aldagela kolektiboak ditugu, neskatila eta mutikoentzat (zentro batzuetan); aldagela hauek eskola-ordutegian erabiltzen dituzte ikastetxeek, eta igeriketako kirol-ikastaroetan izena emandako adingabeek.
- 4.** Minusbaliotasuna duten pertsonentzako egokitutako aldagelak ditugu; aldagela hauek familientzako aldagela gisa erabili daitezke, instalazioko langileek aurretiaz erabiltzeko baimena eman badute.
- 5.** Eremu hezeetara ezin da kaleko oinetakoekin sartu. Dutzatzeko eta aldageletan ibiltzeko oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da.
- 6.** Lehorgailu elektrikoak erabili daitezke; gainerako gailu elektrikoak ezin dira erabili.
- 7.** Emakumezkoen higienarako gaietarako, besteak beste, osasun-konpresetarako eta antzekoetarako, edukiontzi higienikoak daude emakumeen komunetan. Haur-oihalak zabor organikorako edukiontzietan utzi behar dira.
- 8.** Aldagelen eta komunen barruan ezin da jan.
- 9.** Aldageletan ezin da sartu apurtuz gero erabiltzaileei lesioak eragin diezazkiekeen kristalezko objekturik edo antzekorik.
- 10.** Aldagela barruan ezin da egin inolako irudi-grabaziorik edo argazkirik.
- 11.** Ezin da bizarra moztu, depilatu, ilea tindatu, azazkalak ebaki eta antzekorik egin.
- 12.** Zenbait kasutan, aldagela batzuk itxita egon daitezke arrazoi desberdinak tarteko, hala nola, mantentze lanak edo garbiketa lanak; azken kasu horretan, aldagela baten garbiketa bateragarria izan daiteke irekita egotearekin.